

DEBA

Hiriko Udala



Ayuntamiento de

DEBA

2012ko 2. batzardea
2012TBAT0002

INGURUMEN, TURISMO eta GEOPARKE BATZORDEAREN BILERA
AKTA

BILERA ZENBAKIA: 2012TBAT0002
EGUNA: 2012/11/27 (asteartea)
ORDUA: 18:00
TOKIA: Udaleko bilera-aretoa.

BERTARATUAK:

Maidar Zubikarai
Marisa Indamendi

Idoia Alvarez
Jasone Galdona

BERTARATU EZ DIRENAK:

Xabier Ziaran
Edurne Rodriguez
Axier Oñederra
Andoni Garrido
Irantzu Alegria
Bixente Zulaika
Jose Antonio Udabe

ESAN-EGINAK ETA ERABAKIAK:

1. Aurreko akta irakurri eta hala badagokio, onestea

2012ko ekainaren 13an egindako batzordearen akta irakurri eta aho batez onartu zen.

2. Turismo bulegoko 2012ko txostena

Jasone Galdonak Turismo bulegoko 2012ko txostena azaldu zuen. Bulegoaren kalitate sistema, teknologia berrietan hobetzeko programa, egindako promozio eta marketing jarduerak, feriak, publizitate kanpainak, foiletoak, web gune berria, bisita gidatuak, jasotako kexa eta eskariak, estadistika datuak eta urteko kitapenaren berri eman zuen. Batzordekideei txostenaren kopia bidaliko zaiela argitu zuen urte osoko estadistika datuekin.

Bulegoaren udako ordutegia maiatzaren 1ean hasteko proposamena ere egin zuen, udaran hartuko den pertsonetako bat maiatzean hasiko litzateke lanean, maiatza eta ekainean lanaldi erdira kontratatuz. Batzordekideei ondo iruditu zitzairen proposatutakoa.

3. Santiago Bideko erromesentzako aterpetxe berria

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailari egindako eskaera onartua izan da eta 198.000€ko diru laguntza jasoko du udalak geltokiko eraikinean aterpetxe berri bat egiteko.

Udal arkitektua exekuzio proiektua borobiltzen ari da eta epe laburrean lanekin hastea espero dugu. Horretarako Foru Aldundiaren baimena ere beharrezkoa izango da. Proiektua 3 urtetan gauzatu beharra dago eta aterpetxe berria 2014rako izatea espero dugu. Lanen adjudikaziorako pausuak idazkaritzak egingo ditu. Proiektuaren aurrekontu osoa 300.000€koa da eta falta den zatia osatzeko beste administrazio eta erakundeek ere eskatuko zaie laguntza.

4. Debarreneko Turismo Mahaia

Jasone Galdonak Debarreneko turismo mahaiaren osaketa, helburua, eta funtzioak azaldu zituen.

- Mahaiaren osaketa:
 - Debegesako lehendakaria eta bere ordezkari, Debegesako gerentea.
 - Turismo saileko Debegesako teknikariak
 - Deba eta Mutrikuko turismo bulegoetako teknikariak
 - Debemeneko zuzendaria
 - Alojamenduetako ordezkaria
 - Jatetxeetako ordezkaria
 - Turismo arloko beste enpresen ordezkaria
 - Eusko Jaurlaritzako ordezkaria
 - Foru Aldundiko ordezkaria
 - Basquetour-eko ordezkaria
- Helburua: Debarrena eskualdean turismoa indartzeko beharrezkoa den lankidetzaren publiko eta pribatua sustatzeko organo bat izan nahi du.
- Funtzioak:
 - Gure eskaintza hobetzea, kalitate programak, innobazioa, irisgarritasuna, formakuntza eta sentsibilizazio jarduerak martxan jarri.
 - Dinamizazio planak jasotzen dituen ekintzak martxan jarri.
 - Promozio turistikoa eta produktu turistikoen diseinu eta dinamizazioan parte hartu, proposamenak egin, eztabaidatu.
 - Kalitate programen ebaluaketa

-Etorleen ekarpenak jaso eta aztertzea.

5. Lehiakortasun programa

Jasone Galdonak Eusko Jaurlaritzak Debegesaren bitartez lehiakortasuna garatzeko martxan dituen hiru programen berri eman zuen.

-KALITATE PROGRAMA: 42 enpresak hartzen dute parte eta horietatik 21 Debakoak dira
-TICs (teknologia berriak garatzeko programa):11 enpresak hartzen dute parte, horietatik 4 dira Debakoak

-ANFITRIONES PROGRAMA: 2012an ikastaro bat egin da, 16 partehartzaile izan ditu.
"recomienda empresas y servicios de tu destino"

6. Produktuak sortu eta garatzeko programak

Eusko Jaurlaritzak turismoa garatzeko dituen programekin bat eginez, natura turismoa eta Gastronomia garatu nahi ditugu hurrengo urteetan:

-**Natura turismoan** hiru produktu ditugu:

BTT: Pisten mantenua, promozioa, BTT martxa

IBILBIDEAK: PR-44 eta 46 homologaturik mantendu dira, PR-45 deshomologatu egin da eta GR-121 arazoak konpontzeko lanean gabiltza.

SURFA: Surfeko Club produktuko kide gara, Turismo bulegoa, Itxaspe kanpina,

-**Gastronomia:** Eusko Jaurlaritzak Euskadiko Enogastronomia garatzeko GASTRONOMIKA programa abian jarri berri du. Gure establezimenduak klubean sartzeko lanean gabiltza.

7. Geoparkea

Jasone Galdonak bisita gidatuen programaz gain Geoparkeak egindako ekintzen zerrenda azaldu zuen, era berean urteko txostena banatzen denean ere batzordekideei emango zaiela adierazi zuen.

-UPV-EHUrekin elkarlanerako hitzarmenaren bidez Geoparkeko astean zenbait bisita eta hitzaldi eman ziren eta argazki lehiaketa ere egin zen.

-Interes geologiko puntuen inbentarioa ere dagoeneko aurreratua dago.

-Geoparkeko buletina abenduan aterako da

-geoparkeko audiobisuala martxan dago eta Alberto Gorritibereak egingo du.

-Geoparkeko produktuen otarrak martxan jarri nahi dira

-ahotsak proiektua

-Sareak duten Geoempleo programan parte hartu dugu: Iamerian, Deban eta Galizian egon diren jardunaldietan

-Aroucan (Portugalen) Geoparkeko Sareko urteko konferentzian ere parte hartu dugu.

-Bilbon egindako geodibertsitateko II jardunaldietan ere egon gara eta bertan proiektua aurkezteko aukera izan genuen.

8. Hondartza denboraldiko emaitzak

Idoiak pasa den urteko adierazleak jakinarazi ditu bertaratuei. Bide batez aurtengo ikuskaritza berritzea tokatu dela eta oso ondo pasa dela ere esan du. Hona hemen emaitza nabarmenak:


Debako udalak 2003an lortu zuen lehendabizikoz ISO 14001 arauaren ziurtagiria bere bi hondartzetarako (Santiago + Lapari). Arau horrek enpresa edo erakunde batek, bere borondatez, Ingurumena kudeatzeko sistema (IKS) bat ezartzeko jarraitu behar ditueneko ildoak zehazten du. Eta Ingurumena Kudeatzeko Sistema bat erakunde baten ingurumen-jarduera planifikatu, gauzatu, berraztertu eta hobetzeko ziklo jarraitu bat da.

Denboraldi bakoitzean ingurumen-programa bat abian jartzen da, inpaktua sorrarazten duten aspektuak murrizteko helburuarekin. 2011ko programak honako jarduerak honakoak ziren:

Meta	Meta lograda
1.1. No aumentar la generación de residuos generados por usuarios no recogidos selectivamente.	% 0.06 jaitsi da
2.1. No aumentar el consumo de agua en más de 1%	%16 jaitsi da
2.2. Minimizar el consumo de energia en un 5%	%3Jaitsi da
3.1: Realizar una acción de sensibilización a usuarios	Kanpaina bat burutu da
4.1. Realizar al menos una acción relacionada con la información de la playa y entorno	Ekintza 1


Urte bukaeran hondartzako aspektuak neurtzen dira, ezarritako helburuak lortzen diren ala ez jakiteko, lazko denboraldiak emaitza nahiko onak eman zituen, ikus ditzagun:

UR-KONTSUMOA:



2011n erabiltzaile batek hondartzara joan zen bakoitzean 9,3 litro ur kontsumitu zituen, 2010ean, berriz erabiltzaile batek 11 litro gastatu zituen.

ENERGIA:




Instalakuntzen energi elektrikoaren eta gasaren kontsumoa ere beherantz egin zuen

HONDAKINAK:

Itsasoak ekarri dituen hondakinen kopurua nabarmenki gora egin dute, 7331 kg gehiago jaso dira. Erabiltzaileek sortu duten hondakin kopurua ere igo egin da: 2661 kg gehiago sortu dituzte. Erabiltzaile batek hondartzara joan den bakoitzea 70 gr hondakin sortu dituela.

Gaika jaso diren hondakienak ere gora egin dute. Ontziak dira sailkatuta jasotzen diren hondakin kopuru handiena.




BAINUKO UR-KALITATEA

Udaldian zehar Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Kontsumo sailak astero aztertzen du Debako Hondartzako bainuko uraren kalitatea. Iaz 15 analisi egin zituen eta guztiek OSO ONA kalifikazio sanitarioa izan zuten, RD 1341/2007 legeriaren arabera. Hondartzako egoera sanitarioak ere Onak izan ziren beti.

KOSTEAK:


Zenbat eta baliabide gehiago kontsumitu, gero eta koste handiago du udalarentzat. Hurrengo grafikan hondartzako gastu guztiak ikus ditzazkegu: hondartza eta pasealekuaren garbiketa, sorospen zerbitzua, megafonia, instalakuntzen mantenimendua, hondakinak kudeatzea, kabinetako eta duxetako ur-kontsumoa, instalakuntzen energi-kontsumoa eta hondartzako ustiapena.



2011ko gastuetatik, Udalak %56ari egiten dio aurre, eta gainontzekoa Foru Aldundiak, hondartza garbitzeagatik hain zuzen.

Amaitu den denboraldi honek eman dituen emaitzak, kexak, ez adostasunak, ...e.a. aztertuko dira, hurrengo urteko programa eratzeko.

2012ko Ez adostasuna: hondartzako kartelak txuriz utzi dituzte



Aurten ere alkate berria egonik, hondartzako ingurumeneko politika ere aldatu da.

2. Hondartzako duna sortzeko proiektuaren atzerapena.

Foru Aldundiak proiektuarekin jarraitu egiten du, eta Costaseko legeriak eskatzen dituen pausu guztiak betetzen ari da. Dagoeneko aurkeztu dute proiektua Costas Sailean. Honek ofizialki ez du erantzun baina ados dago eta ez du trabarik jarriko. Beraz laster izango dugu hauen berri, aurten edo 2013ko urtarrilean landaketak eta itxitura egiteko asmoa baitago. Landaketa Mendatako ikasleek egiteko aukera izango dute.

Aurreko batzordean aipatu zen bezala, abenduan foro bat antolatuko da, herritarrei dunei buruzko proiektua azaltzeko eta horiek dituzten dudak argitzeko. GFAko teknikariek (Leire Troitiño eta Jon Zulaika) proiektua azalduko dute.

3. Deba ibaia balioan jartzeko proiektua. Ibailagun. Emaizak

Ibailagun, Debegesak sustatutako Bizigura proiektuaren baitan dagoen proiektua da. Helburu nagusia. Deba Ibaiaren aldeko bolondres sare bat sortzea. Horren baitan bi ekintza nagusi azpimarratzen da.

- Espezie inbaditzaileen lokalizazioa, eta erredikazio lanak burutzea: Honen inguruko mapa bat eratu da.(mapa linkatzen dizut). Gipuzkoako Foru Aldundiak erradikazio lanak burutzen hari da Bailaran.

- Ibaiaren garbiketa:. Bigarren urtea izan da aurten. Herriko eragile nagusien inplikazioa lortu nahi izan da. Bailara guztietan ospatzen da, baina aurten herri bakoitzean data ezberdinetan egin da. Irailaren 15ean ospatu zen Deban, eta 120 pertsona inguru hartu zuten parte, gehienbat, familia osoek hartu zuten parte. Itsasontziz ere, hau da ibaitik joanda, ibaiertzetako zaborra bildu zen.

Argazkiak, hurrengo loturan dituzue eskuragarri:

<http://www.flickr.com/photos/debegesa/sets/72157631556599279/>

4. Ondar-gaineko kontzesioa

Hondartzako tabernako kontzesioa 2012ko abendua bukatzen da. Costas sailak Udalari emandako kontzesioa aurten amaitzen da, eta, baldintzetan dioen arabera luzaezina da. Beraz udalak aurreko astean Costasi beste kontzesio berriaren eskaera egin dio. Beraz, honen baimenaren zain egon behar gara lizitaziora ateratzeko.

5. Tupperren kanpaina

Udalak Kanpaina abenduan, gabona inguruan, hasteko asmoa zuen, baina herriko zenbait harakin eta dendariekin izan eta gero, urtarrilera atzeratzea erabaki da, azken horiek ez baitzuten nahi Gabonetan egitea. Kanpaina zerri buruz doan azaltzeko eta parte hartzera gonbidatzeko bilera aurreko astean izan zen. Bertara herriko arraindegi, urdaitegi, harategiak eta Eroski deituta zeuden. Bertaratu zirenen artean, ia denek parte hartuko zutela adierazi zuten.

Kutxa Ekoguneko ordezkariak, beste herrietan ere kanpaina bera aurrera eraman duenak, etxebizitza bakoitzeko tupper bat ez erosteko dio, %60 baizik. Jende guztia ez baita egongo interesatuta kanpainan.

Beraz, gauzak ondo joanda, urtarrilean jarriko da kanpaina abian.

6. Mural lehiaketa

Udalak lehenengo mural lehiaketa atera du. Oinarriak aurreko astean banatu zituen herriko hainbat gazte eta erakundeen artean. Hurrengo lerrotan lehiaketaren arauak eta informazioa dituzue:

MURAL LEHIAKETA. OINARRIAK:

1.- Nahi duen edonork har dezake parte. Taldeka nahiz banaka parte hartzeko aukera dago. Partehartzaile edo talde bakoitzak gehienez hiru lan aurkez ditzake.

2.- Bi maila egongo dira: 18 urtetik beherakoentzat eta 18 urtetik gorakoentzat

3.- Muralek, nahitaez, ondoko lehen erantzun beharra diote: "HONDAKINAK KOLOREZ KOLORE, DENONTZAT HOBE"

4.- Muralek ondorengo neurriak izango dituzte: 5 m zabal eta 2,5 m altu gutxi gorabehera. Aurkeztu beharreko bozetoek, berriz, 1 m zabal x 0,8 m altu gehienez ere.

5.- Bozetoak edozein teknika edo material erabiliz egin daitezke; baina kontuan hartu, gero, paretan margotu behar direla.

6.- Lanek, nahitaez, argitaragabeak izan beharko dute, hau da, norberak sortutakoak eta lanaren aurkezleak izango du erantzukizun osoa baldintza hau ez betetzearen ondorioz gerora gerta daitekeen edozein erreklamazioaren aurrean.

7.- Bozetoak sinatu gabe aurkeztu beharko dira eta aparteko kartazal batean jarriko dira egilearen datu hauek:

- Jaiotze data, NANa eta herria
- Helbidea eta telefonoa

8.- Lanak aurkezteko epea 2012ko abenduaren 10a, 14:00ak arte. helbide honetan:

Debako Udala- Ingurumen Saila
Portu kalea 1, 20820 DEBA

Edozein argibidetarako 943 192840 telefonora deitu

9.- Epaila lanak Debako biztanleriak egingo ditu. Abenduaren 14an (arratsaldeko 5etatik 8ak arte, foruen plazan) edo egun batzuk lehenago, internetez, bozkatu ahal izango dute herritarrek.

10.- Maila bakoitzeko bozeto irabazleak bakarrik sarituko dira eta Debako jatetxe batean gastatzeko 120 €ko bonoa jasoko dute.

Irabazleek Itur kalean alde zurratik egokitutako paretetan margotuko dute euren murala. 18 urtetik beherakoek Haitz-Handi elkartearen laguntza izango dute murala margotzeko.

11.- Murala margotzeko pinturak Udalak jarriko ditu.

12.- Saririk lortzen ez duten lanak epaimahaiak erabakia eman ondorenko hilabeteko epean jaso beharko dira. Epe hori igarota lanak ez badira jaso, egileak Debako Udalaren esku uzten dituela ulertuko da.

13.- Muralak margotzen hasteko eguna, abenduaren 23a izango da, beti ere eguraldia ona bada.

14.- Saritutako lana Debako Udalaren jabetzarako geldituko da eta hark nahi duen edo egoki iritzitako erabilera eman ahal izango dio.

15.- Ez dira onartuko oinarri hauek betetzen ez dituzten edo baldintza hauetara egokitzen ez diren lanak. Ezta genero irizpideak kontuan izaten ez dituztenak edota inor iraintzen dutenak.

16.-Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarri hauek onartzen direla adierazten du.

17.-Udalak erabakiko ditu oinarri hauetan agertzen ez diren arazo guztiak eta haren erabakiaren aurka jotzerik ez da egongo.

7. Gabonetako apaingarriak

Udalak aurten gabonetako apaingarri bereziak jarriko ditu kaleetan, material birziklatuez eta ez kutsakorrez eginiko apaingarriak izango dira. Mendata eta Luzaroko ikasleak, eguneko zentroko erabiltzaileak eta Arbil elkarteko kideak egingo dituzte apaingarriak.

Helburuak, material birziklatuarekin apaingarriak egiteaz gain, gabonetako argiak gutxiago jartzea dira.

Aurten hiru apain mota egitea aurreikusten da:

- CDekin eginiko "faldoiak"
- Plastikozko botellekin eginiko izarrak
- Plastikozko poltsekin egindako girnaldak.

8. Argiteri publiko eraginkorra.

Energiaren eraginkortasuna hobeto kudeatu eta ahal den neurrian kostuak murrizteko asmoarekin. Udalak, dagoeneko neurri batzuk hartu ditu kale batzuetan argiterian inbertsio desberdinak eginez, Zumardian, Arrantzale Pasealekuan, Mariñel eta Markiegi kaletan eta Nafarroa Plazan.

Azken neurriak ondorengoak izan dira:

- 150 W potentzia zuten 40 argi 100 W duten beste hainbestegatik Agirretxe kalean (energia-aurreztea 33%)
- 150 W potentzia zuten 18 argi 29 leds duten beste hainbestegatik Mogel kalean (energia-aurreztea 80%)
- 250 W potentzia zuten 13 argi 150 W duten beste hainbestegatik Hondartza kalean (energia-aurreztea 40%)

Hobekuntza hauen inbertsio osoa 27.000,-€ + BEZ izan da. Gipuzkoako Foru Aldunditik 15.000,-€ko diru laguntza izan dugu.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzak, Portuan, Anes Arrinda Pasealekuan, leds motako 30 argi jarri ditu lehengokoak ordezkatzuz (aurreztuko duten energia %80).

Neurri hauekin energiaren eraginkortasuna handitu eta argi kutsadura murriztea lortu nahi dugu..

Datozen egunetan 24:00 ordutik aurrera argi-fluxu murriztaileak jartzeko asmotan gara Itziar eta Debako herrigune gehiengoan. Gabaerdia egunsentia bitartean argiteriaren indarra jaitsiko da ikusgaitasun orokorra igarri gabe.

9. Eskatutako dirulaguntzak

(Ingurumena) Eskatutako dirulaguntzak				
Ekintza	Nori	Kostua €	Emandakoa €	Garatzeko Urtea
Herri partaidetza	Udalsarea 21 - ihobe	1829	810	2012
Partaidetza sustatzeko	Foru Aldundia	8000 + bez	4000	2012
Hondakinak	Foru Aldundia	7300 + bez	0	2012
Ekintza berrikuspena planaren	Foru Aldundia	20150 + bez	10.276,50	2012 eta 2013

10. Aurrekontuak-likidazioa

INGURUMEN AURREKONTUA 2012

Onartutako Aurrekontua			Eginiko gastuak eta urtea bukatu arte aurreikusten direnak
3050	hondartzako kaseta		3068
5000	hondartzako mantenimendua + Legionella		6290
3000	Costas		5970,1
25000	tasas vertido.		24816,92
22000	baliabide pertsonalak.		17558,4
2314	debegesako garapen iraunkor sailera ordaintzen dena.		2314
5000	hondartzako Ingurumen Kudeaketa Sistema		4575,18
		3000	kanpo auditoria
		1050	barne auditoria
		700	megafonia
		700	lapariko dutxa
		450	ser-konten
6000	AG 21		5557,13
		700	udalsarea
		2500	kutxa-tupper
			debanatura tailerra ekobira
			O zabor hitzaldiak
			zubi txiki ginkana
			Mural lehiaketa
71364			70149,73
DIF. 1214 €			

9. Eskariak eta galderak

Marisa Indamendik bideen egoera salatu zuen. Gai korapilotsua da eta Maider Zubikaraik gai hori sakon aztertzeko mahai bat osatu nahi dela azaldu zion, bertan udal teknikariak, eskualdeko teknikariak eta Burdin Gurutz eta Santiago Bideko lagunak ere egongo dira.

Besterik gabe bilera bukatu zen.